

## **KOSTUAK**

Gure produktua 3Dko makinarekin egingo dugu eta horretarako 2 txandetan lan egingo dugu. Makina honen etekin handiena ateratzeko lau kaxa eta tapa pastillero produzituko ditugu aldi berean. Lau tapa egiteko, 61,6 gramo filamentu erabiliko ditugu eta pastilleroko lau fila egiteko, 283,98 gramo filamentu erabiliko ditugu.

Hasieran, gutxi gora behera, hilabete t'erdi bat eskeiniko diogu produkzioari. Hau egingo dugu, stockean produktuak izateko. Denbora hori pasa eta gero, enpresako lankideak, atal ezberdietan banatuko gara. Hau da:

- Aitana Lopez: Ordezkarria, Finantza eta administrazio burua
- Noa Gonzalez: Produkzio kudeatzailea→ Muntaketa teknikaria
- Jone Ariza: Marketing eta salmenta burua→ Salmenta exekutiboa
- Naroa Corral: Produktuen garapeneko burua→
  - Programadorea
  - Diseinatzailea

Gure enpresak kostu finko batzuk ditu, hau da: Ura, internet eta telefonoa, trasporte enpresa, pultserak, lokala, marketina, soldata, elektrizitatea eta 3Dko makinak. Era berean, kostu aldakorak izango ditugu, hauek dira: sentsorea eta argia. Kostu aldakorren barruan, kostu aldakor unitarioa izango dugu, filamentua izango da.